

LAURA BAIGORRI

Technologies To The People

Hurbilpen artibistak *online* informazioaren tratamenduari

Daniel García Andújarren sarrera sarearen lurraldean zenbait proiektu ilunekin hasi zen, zalantzan jartzen zituztenak informazio legalaren mugak eta teknologiarako modu askean iristea, baita sarearen ustezko elkarrekintza eta sinesgarritasuna ere, eta azken urteotan eboluzionatu egin du ekimen *garden* sorta batera¹, den-denak herritarren lankidetzari irekiak. Jarrera etiko baten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien kontzeptu sozial sakon baten ondorioa da trantsizio hori.

Baina joan gaituz pixkanaka. Haren *online* ibilbidea 1996an hasi zen *Technologies To The People*® delakoaren sorrerarekin; xede sozialak dituen *konpainia* horrek irational web orriari hartzen du ostatu -nazioarteko sistema horrek informazio "irrazionala" garatzen du, lekualdatzera eta alderrai ibiltzera bideratutako zerbitzu eta produktuak-, eta bertako espazioa eta filosofia partekatzen du. "Mundu digitalaren barruan, Irational internetek informazioa partekatzeko zuen indarrak jabetu zen lehenetariko bat izan zen, eta bereganatu egin zuen hackerren adagio ospetsua: "informazioak librea izan nahi du". Artibismo intelektualizatuago baten aurrean, Irational ekintza zuzenagoko bertsioa izatea izan du ezaugarri, eta ekintza horrek beti eskatzen du gainerako lankideen konplizitatea, eta ateak zabaltzen dizkio ekintza politikoaren hurbiltze kolektiboago bati, arte formatuan"².

Simulaziotik....

Bere orri nagusian *Welcome to NetArt-Ghetto* batekin agurtzen gaitu, eta bertatik jaurtitzen ditu zenbait simulazio proiektu, zeinen kasu paradigmaticoa agian *Video Collection* bideoarte erakusketa berebizikoa izan bailiteke; bertan daude ordezkatuta diziplina horren figura nagusiak, saretik sartzea badago eta erabat dohainik da. Autoreak posta elektronikoz jasotako erantzunek, erabiltzaileenak zein banatzaileenak izan, nahasmena uzten dute agerian, erakustea beti egile eskubideen mendean egon den lan batzuetara iriste librea oinarritutako proposamen batek eragin dezakeen nahasmena.

Hurrengo urratsa izan zen proiektu mota berezi bat sortzea, egia eta simulazioa modu perbertsoan elkarbizi diren proiektua. *The Famous Art Power Database for ARTIST* delakoan, adibidez, *TTTT*®k informazio ezkutua ematen digu internetez. Web orri horretan badaude interneten lan egiten duten artistei bideratutako datu eta berri erabilgarri asko: nor bere web orria egiteko jakin beharreko guztia, baita sare barruko legezko eta legez kontrako kontuei buruzko testuak ere. Orria gaien arabera eginiko atal oso espezializatuetan banatzen da: Delitu Informatikoa eta Jabego Intelektuala, Hackerren Hiztegia eta Linux Glosategia, eraso eta defentsarako tresnen hedapenera bideratutako sektore bat, eta badaezpadako legezketasun edota moralitasuneko jardueri buruzko oinarritzko ezagutza bilduma bat.

Eta ildo beretik doa *Phoney*^{TM 3}, CD-ROM formatuko beste proiektu informatibo bat, arma informatikoen (programak eta birusak) datu base moduan sortua erabili nahi dituen edonoren zerbitzurako... kodeak ezagutzen baldin baditu.. Bi maila ditu lan honek: bata espezializatuagoa, benetako deskalabru informatikoak eragiteko gai diren hackerrentzat -hala nola enpresa indartsuen ordenagailuetan sartzea edo zerbitzariak kutsatzea-, eta bestea askoz errazagoa: anonimotasunean gordeta, erabiltzaile hasiberri batek bertako argibide errazak jarrai ditzake banku transferentzia xumeak egiteko edo telefono elkarrizketak entzuteko. Eragiketa horiek guztiak erabat legez kontrakoak dira, eta horixe gatzigatzen dute behin eta berriz gure ordenagailuaren pantailan agertzen diren iragarkiek —*Technologies To The People*®, *its members and Art Power Database's contributors will in no case be held responsible for any misuse of the information provided. You do the crime, you do the time*—, baina artistak erabiltzailearen zentzuaz eta erantzukizunaz fidatzea erabaki du. Informazioa modu librean eskuratu ahal izateak ez du nahitaez esan nahi haren erabilera (okerra) egingo denik... ala bai?

Proiektu eztabaidatsu horiek geure buruari galdera ugari egitea ekartzen du, eta horien artean nagusi, zein ote diren García Andújarren egiazko asmoak. Zein da horien xedea: erabilera murrizteko datuak hedatuz ezagutza erraztea ala zalantzan jartzea informazio batera libreki iristea, informazio hori edozein erabiltzailek zigorrik gabe manipulatu dezakeen bitartean, bere ordenagailuaren parapeto inbertsonalaren atzean ezkatatuta? *TTP*® ironiaz baliatzen da -bai zinismoaz ere, tarteka- konbentzioak hankaz gora jartzeko, baina batez ere informaziora iristea “beste termino batzuetan” planteatzeko.

... lankidetzara

Duela urte batzuk, Bartzelonako Arte Ederretako Fakultatean hitzaldi bat ematen ari zela, Muntadasi galdetu zioten ea bere proposamenek zergatik kritikatzin zuten mass medien (gehiegizko) erabilera eta ez zuten “*irtenbiderik*” eskaintzen. Haren erantzuna irmoa izan zen: “*ni artista naiz, ez politikaria. Politikariek lan egin behar dute aurrerapen sozialak lortzeko; artistok komunitate baten gabeziak agerian utzi besterik ezin dugu egin*”.

e-valencia.org abiaraztearekin batera, badirudi ustezko mugapen hori gaintitzea erabaki zuela García Andújarrek; hartara, beste norabide bat eman zion bere ibilbideari, eta bete-betean sartu zen ekintza sozial zuzenaren esparrura... eta eraginkortasunarenera. *e-valencia.org* Valentiako kultur politikari buruz eztabaidatzeko ataria da, eta zabalik dago sarean eztabaidatu, hedatu eta debatitzeko; edukiei dagokienez, erabiltzaileek dute haiek sortzeko ardura. Ez dira jada egileak aurrez jarritako informazio edo simulazioak, ez; plataforma bat sortzea da xedea, elkarlanerako espazio moduan ulertua, hari esker herritarrek (kontra)informazioa partekatu ahal izan dezaten. Eta gauza bera gertatzen da *e-barcelona.org*⁴ berri-berriarekin; atari horrek aurrekoaren ezaugarri berdinak ditu, baina Bartzelona hiriarren kultur beharrezanetara bideratuta dago —ez alferrik darama izenburu “*Kultur Foroa*” (*versus* “*Kulturen 2004 Foroa*”)—. Ildo parte-hartzaile berbera aurkitzen da orain aipatuko ditugun proiektuetan ere..

e-arco.org orria “*Lehen sorospenak artistentzat*” lemarekin zabaltzen da, eta bertako logotipoak ironiaz jokatzin du Gurutze Gorriaren sinboloarekin eta suitzar

banderarekin (Suitza herrialde gonbidatua baita ARCO'03n). Artistei bereziki zuzendutako webgune horrek haien eskubideei buruzko informazioa ematen du, eta bi atal polemiko ere baditu: haien ordainsariei buruzko inkesta bata, eta "gatazka" izeneko espazioa, zeinean galeria, museo eta erakundeekin izan dituzten esperientzia txarrak konta ditzaten eskatzen baitzaie. Parte-hartze librea sustatzeaz gain, haren egileak (Roc Parés da lankidea) beren asmo kritikoa argi eta garbi definitu eta bideratzeaz arduratu dira.

Sarean arestian egindako beste proiektu batean, *Individual-Citizen Republic Project*TM, (2003), *El Banquete*⁵ erakusketa zela eta egina, García Andújarrek beste urrats bat egin eta espazio berean bildu zituen bere lehen eta azken interesak. Egileak honela definitu du webgunea: "beti berrituz doan proiektua da, herritar autonomoaren prototipo sozial baten eraikuntza eta esplorazioan oinarritua, eta informazio publikoko iturrietatik lortutako baliabideak sustatu, erabili eta garatzen dituen gero komunitateari eskaintzeko prozesu sozial kolektiboaren parte gisara"; web orriak pilatu egiten ditu erabiltzaileek borondatez eskaintako baliabideak, honako kategoria hauetan banatuak: cracking, exploit, forum, hacking, linux, phreaking, privacy and crypto, security, tools, tv-hack, virus eta wireless. Bereziki esanguratsu suertatzen da "about" atalean, beti *online* proiektu ororen printzipioak deskribatzen diren partean, artistak lerro bakar bat ere idatzi ez izana; horren ordez, hiru lotura soil idatzen ditu, Apache, PHP eta MySQL kode irekiko baliabide alternatiboena. *TTTT*®ren fundazio garaiko konpromisoa, hots, herritar guztiei teknologiarantz iristeko erraztasunak ematea, *BanqueteWireless* tailerrean gauzatu zen azkenean. Azpiegitura komunitario horrek interneteko sarbide eta irteera nodoak dauzka, eta bertan dohainik partekatzen dira baliabideak.

Posiblea al da egilearen disoluzioa?

Sareak erraztasun anitz ematen ditu anonimotasuna gordetzeari dagokionez, eta zenbait egile ezizen batez baliatzen dira arrazoi batzuk direla medio: kasu gehienetan, nahi duten gauza bakarra izaten da artista-izar protagonismo hori saihestu eta obra azpimarratzea beren izena baino gehiago. Horretarako, taldeak izendatzeko izenak erabiltzen dituzte, hala nola Technologies To The People®. Ikusleari obraren interpretazio eta lantze lanean erantzukizun handiagoa emateko borondatearen erakusgarria da orobat jarrera hori -"ce sont les regardeurs qui font les tableaux", zioen Duchampek-. Beste kasu batzuetan, nortasun kutsatu gabeko berri bat bereganatzea izaten da kontua, bere egiazko izenaren konnotazio nazional, geografiko edo kulturalak barreiatuko dituen eta aurreiritzi edota sailkapenetatik kanpo jarduten ahalbidetuko diena. Eta oraindik suma dezakegu helburu bat, izar-maila artistikoa edo sailkatze geokulturala saihesteko asmotik haratago doana: artistek izen eta estrategia korporatiboak bereganatzen dituztenean, saiatzeko ari dira, gainera, emulazioaren bidez enpresen egitura espekulatibo eta juridikoak zalantzan jartzen.

Inongo ez bairik gabe, asmo horiek ez dute lortzen egilea behin betiko ezabatzea, ezta benetako anonimotasuna lortzea ere, baina haien jarrerak artistaren mitifikazio prozesuari lotutako autoretzatza nozioa oraindik zalantzan jartzen duen jarrera etiko baten lekukotza moduan irauten dute.

Testuinguru mediatikoa eta testuinguru artistiko instituzionala

Beste aldetik, badirudi *online* proiektu horiek, ikuslearekin harreman parte-hartzaile zuzena ezartzen dutenak eta partekatutako informaziotik abiatuta egituratuak izan direnak zilegitu daitezkeela arte erakundetik kanpo, buruaskiak direla eta ez dutela haren abalik behar, erabiltzailearekiko harreman zuzenak eta sareak hornitzen duen hedapen etengabeak bere helburu eta premiak betetzen dituelako⁶. Baina egoera horrek kasu oso zehatzetarako bakarrik balio du, hala nola *e-valencia.org*-en kasurako, saretik bakarrik jardunda parte-hartze eta hedatze alorretan nolabaiteko arrakasta lortu baitu. Alabaina, *Individual-Citizen Republic Project*TM eta *e-arco.org* webguneak dagokion erakusketa lekuetan bertan egindako instalazio presentzialen bidez integratzen dira arte zirkuituan⁷, eta haien zeregina *online* duten existentzia osatzea edo hari ikusgarritasun gehiago ematea da.

Eta ez dirudi beharrezkoa bakarrik lanen presentzia fisikoa; artistarena ere beharrezkoa da. Zeren Daniel García Andújarrek, *irational*-eko bere lagunek bezalaxe, denbora ugari ematen baitu jaialdiak, topaketak, mintegiak, tailerrak... direla eta. Areago, bere aurkezpenak bere lanaren parte oso garrantzitsua dira. Paradoxa gertatzen da egiaztatzen denean haren kokapenak testuinguru (global) mediatikoan ez duela ordeztzen (tokiko) testuinguru instituzionala; izan ere, presentzia publikoa, artistak bere burua sustatu eta lana hedatzeko duen baliabide handiena, bitartekotza artistiko instituzionalaren bidez lortzen baita, batez ere.

LAURA BAIGORRI irakaslea da Bartzelonako Arte Ederretako Fakultatean.

LOTURAK

Technologies To The People® <http://www.irational.org/ttpp/primera.html>

irational <http://www.irational.org/>

Video Collection <http://www.irational.org/video/>

The Famous Art Power Database for ARTIST <http://www.irational.org/APD/home>

Transmediale01 - lux ziffer#01 <http://www.transmediale.de/01/en/lux.htm>

e-valencia.org <http://www.e-valencia.org/>

e-barcelona.org <http://www.e-barcelona.org/>

e-arco.org <http://www.e-arco.org/>

Individual-Citizen Republic ProjectTM <http://www.irational.org/ttpp/banquete/>

Exposición El Banquete <http://www.banquete.org>

OHAR ETA ERREFERENTZIAK

¹ “Sormenaren balioak, balore soziala den aldetik, eta informaziora modu librean iristean gauzatua, ezagutza garden bat sortzea eragiten du, era kolektiboan lortutako ahalegin eta baliabideetan oinarritua”. Daniel García Andújar liburu honen hitzaurrean: *Creación Colectiva. En Internet el creador es el público*, in CASACUBERTA, D. Barcelona: Editorial Gedisa, 2003.

² CASACUBERTA, D. *Ibidem*.

³ *Lux Ziffer* sari berezia Berlineko Transmediale 01 delakoan.

⁴ Lerro hauek idazten ari naizen bitartean web orrian sartu naiz, orain froga garaian dagoena eta testu hau argitaratzen denean *online* egongo dena.

⁵ *El Banquete* Karin Ohlenschläger-ek eta Luis Rico-k (MediaLabMadrid-en zuzendariak) sortutako proiektu bat da, Iván de la Nuez (Palau de la Virreina delakoaren erakusketa zuzendaria) eta Peter Weibel-ekin batera (artista, teorikoa eta Karlsruhe ZKMko zuzendaria) komisariatua. Proiektuaren haria metabolismoaren eta komunikazioaren arteko analogia da, hemen elkarrizketa formara eramana, Platonek mendebaldeko kulturari sartu zuen modura. *El Banquete* elkarrizketa moduan dago artikulatuta, artista, zientzialari eta esparru askotatik (biologia, ekonomia, literatura, antropologia, komunikazioa, neurozientziak edo aktibismo sozial eta ingurumen alorrekoak) etorritako pentsalarien arteko elkarrizketa moduan.

⁶ "Identitate korporatiboa sortu eta espazio publikoa aukeratzean beren burua adierazteko eta beren ekintza eremua (artikulazio urbanoko espazioak eta komunikazio mediatikorako espazio publikoak) zehazteko, hau bezalako ekimenek, plataforma artistikoa gorabehera, edo agian hartatik abiatzen direlako, antza denez ez dute arte erakundearen abalik behar zilegitze, (auto)kokatze eta hedapen prozesuari dagokionez; aitzitik, beren funtzioetako batzuk birplanteatzea lortzen dute, modu buruaskian funtzionatzen baitute sortzen dituen eta barne hartzen dituen testuinguruaren beraren barruan. (...) Proposamen horiek zalantzan jartze inplizitu bat planteatzen dute lanera iritsi, harekin komunikatu eta elkarrekintzan jarduteari dagokionez espazio instituzionalaren markoen barruan. Erakusketa espazioak oraindik ere bitartekotza tresnak behar dituela dirudien bitartean, pieza hauek, interfaze moduan aurkezten direnez, ikuslearengana daude bideratuta, hura interpelatzeko dute zuzenean, eta kontsumitzaile pasibo baino gehiago erabiltzaile bihurtzen dute". ARRIOLA, M. *Razón social*, Simposio Internacional de Teoría de Arte Contemporáneo, México DF, 2002. http://www.enconstruccion.org/razon_social.htm

⁷ Lehenbizikoa Palau de La Virreina *El Banquete* erakusketan eta *BanqueteWireless* tailerrean, Hangar-en egindakoa, biak Bartzelonan; bigarrena ARCO'03n, Madril.